

# Lizarragako euskararen azterketa

GREGORIA SOLÍS SENAR\*

SARRERA

LIZARRAGAKO EZAUGARRI OROKORRAK

**H**izkera bereko herri guztietan ez da berdin hitzegiten. Ergoiena haranean; Dorrao, Unanu eta Lizarraga, nahiz eta hizkera berekoak izan, oso ezberdin hitzegiten da.

Lan honetan, Lizarraga herriko hizkera, fonetikoki eta fonologikoki, aztertzen da.

Herri hau, Nafarroako probintziaren mendebaldean kokatzen da. Iruñetik berrogei kilometrotara. Lizarraga, Unanu eta Dorraok, Ergoiena harana osatzen dute.

Mendiz inguratutako zelaian dago. Mendi hauek ditu bere inguruan: Beriain, Aralar, Andia eta Urbasa mendikateak.

1992ko biztanlegoaren kopurua 250 da. Azken hogeita bost urte hauetan, biztanlegoaren murrizte prozesu bat eman da; jende askok aldegin du herritik lantokiaren inguruan bere bizilekua kokatzera, industriarik ez bait dago bertan.

Lizarraga herriak nekazal giroa bizi du. Berrogeita hamar urte ingurutik aurreragoko pertsonak, erabat nekazaritzatik bizi dira. Gazteak, herrian bizi diren gazte gehienak, nahiz industrian lan egitera inguruko herritara Lakuntza, Irurtzun, Urdiain ingurura atera, bueltan baserria eutsi eta iraunarazi nahian, bertako lanari ekiten diote.

Industriarik ez izatearekin, Lizarragan ez da inmigrazioerik gertatu. Han bizi den jende gehiena, bertakoa da. Honek, herria erabat euskalduna izan dadin eragin haundia izan du, eta gainera, bertako pertsonen haien bizimo-

\* Frantses filologian lizentziatua. Urretxuko Lizeo Garaialden irakasle.

dua eta lanbidea han kokatuz, beste hizkerekin ez dute interferentzia haundirik. Beraz, herria erabat euskalduna da.

## EZAUGARRI LINGUISTIKOAK

L.L. BONAPARTEK egindako laugarren sailkapenean, nahiz kritikatu izan serioa kontsideratzen denez, zortzi dialekto bereizten dira. Honetako bat, Gipuzkera da. Nafarroan, haren kriterioa jarraituz Gipuzkera, Burundara eta Etxarri-Aranatza hedatuko litzateke.

Gaur egun, nahiz eta Bonaparteren sailkapena kritikatu izan, oraindik bakarra da (edo serioena behinik behin).

Hona hemen Gipuzkeraren dialektologi mapa, Lizarragako kokapen linguistikoa ikus dadin<sup>1</sup>.

## HIZKERAREN AZTERKETA

### A. BOKALAK

Lizarragako hizkeran, nahiz fonetikoki nahiz fonologikoki, bost bokal aurkitzen ditugu: i-e-a-o-u.

Bokalak aztertzerakoan, fenomeno hauek agertzen dira:

#### 1. Hitzen bukaerako bokal aldaketak

1.1. Bokal irekietan ixteko joera dute. Hitza kontsonantez amaitzen bada, *a* mugatzailea hartzerakoan *e* bokalaren aldeko itxiera nabarmentzen da. Hitza *i* bokalez amaitzen bada, *a* mugatzailea hartzerakoan, bustidura sortzen da. Hitza *u* bokalaz amaitzen bada, *a* mugatzailea hartzerakoan, loturazko kontsonantea *b* agertzen da.

<i>bazi</i> + <i>a</i> = <i>aziye</i>	[asiye]
<i>garai</i> + <i>a</i> = <i>gareye</i>	[gareye]
<i>garrasi</i> + <i>a</i> = <i>garraxiye</i>	[garraxiye]
<i>nahastu</i> + <i>a</i> = <i>nastube</i>	[nastube]
<i>gau</i> + <i>a</i> = <i>gaube gobe</i>	[gaube] [gobe]
<i>eun</i> + <i>a</i> = <i>egune</i>	[egune]

1.2. Normalki hitza *e*-z bukatzen bada, *a* mugatzailea hartzerakoan, *e*-k *a*-ren ondoan ixteko joera dauka, goranzko diptongoa sortuz.

<i>labe</i> + <i>a</i> = <i>labie</i>	[labje]
<i>nere</i> + <i>a</i> = <i>nerie</i>	[nerje]

1. Euskal Dialektologiaren hastapenak, U.E.U. Iruñea, 1983.



2. Mapa

Gipuzkeraren dialektologi mapa.

izate + a = izatie	[ɨsatje]
Baina: ate + a = ateye	[ateŷe]

1.3. Hitza *o*-z bukatzen bada, *a* mugatzailea hartzerakoan, *u* aldeko itxiera nabarmentzen da, goranzko diptongoa sortuz.

liho + a = liyue	[liýwe]
goxo + a = goxue	[gošwe]
zortzitako + a = zortzitekue	[sorcitekwe]

1.4. “*a*” *itsatsia duten hitzetan*

*Hitza berezko a*-z bukatuz gero eta azken aurreko silabaren bokala itxia *i* edo *u*, *a* horrek *e* aldeko itxiera. *A* itsatsiaren eta bokal itxien artean, kontsonantea egon behar du.

eliza = elize	[elise]
aita = ette	[eʧe]
garizuma = garizume	[garisume]

1.5. *Nora galderari erantzuten dioten hitzetan*

*Nora galderari erantzuten dioten hitzetan bukaerako a* bokala mantendu eta ahoskatzerakoan *a* luzatu egiten da, ez da aurreko kasutan bezala itxiera edo bustidurarik ematen

<i>eliza</i> + <i>ra</i> = <i>elizaa</i>	[elisa:]
<i>etxe</i> + <i>ra</i> = <i>etxiaa</i>	[eʧja:]
<i>monton</i> + <i>era</i> = <i>montoniaa</i>	[montonja:]
<i>kanpo</i> + <i>ra</i> = <i>kanpuaa</i>	[kampwa:]
<i>toki</i> + <i>ra</i> = <i>tokiaa</i>	[tokja:]

## 2. Bokalen asimilazioa

*Hizkera honetan ez dugu topatu bokalen arteko trukaketarik. Ondoko bokalen eraginez ematen dena, bokal asimilazioa da.*

<i>baserre</i> = <i>hasarre</i>	[aʃaʀe]
<i>kiskala</i> = <i>kiskille</i>	[kiʃkile]
<i>sukalde</i> = <i>sukulde</i>	[suku]de]
<i>izate</i> = <i>izete</i>	[isete]

## 3. Bokalen erorketa

## 3.1. "a" itsatsiaren galera

Hitzak azkeneko *a* berea badu ere, hizkera honetan ikusten da orokor-ki *a* hori galdu egiten dela.

<i>makina bat</i> = <i>makin bet</i>	[ <i>maki<del>m</del>bet</i> ]
<i>punta hura</i> = <i>punt ure</i>	[ <i>pu<del>n</del>t<del>u</del>re</i> ]
<i>kazula zopa</i> = <i>kazul zopa</i>	[ <i>kasul<del>s</del>opa</i> ]
<i>ama horri</i> = <i>amorri</i>	[ <i>amo<del>r</del>i</i> ]

## 3.2. Hitz barreneko bokal erorketa

Tinbre bereko bi bokal segidan aurkitzen direnean, biak elkartu eta soinu bakarra entzuten da, beharbada bokal honen luzapena ematen delarik.

<i>ner</i> = <i>nee</i>	[ <i>ne:</i> ]
<i>gar</i> = <i>gaa</i>	[ <i>ga:</i> ]
<i>ezkaratza</i> = <i>ezkaatza</i>	[ <i>eska:ca</i> ]
<i>ere</i> = <i>dee</i>	[ <i>de:</i> ]

Hitz batean, bi bokal berdin, *h* tartean duelarik, topatuz gero *h* ez da ahoskatzen, eta geratzen den hiatua apurtzen da, kontrakzioa gertatzen delarik.

<i>mabats</i> = <i>mats</i>	[ <i>ma<del>c</del></i> ]
<i>zabarra</i> = <i>zar</i>	[ <i>sa<del>r</del></i> ]
<i>lehen</i> = <i>len</i>	[ <i>le<del>n</del></i> ]
<i>mihi</i> = <i>mi</i>	[ <i>mi</i> ]
<i>ohol</i> = <i>ol</i>	[ <i>ol</i> ]

Tinbre ezberdineko bokal erorketak ere ematen dira. Monoptongazioak gertatzen dira:

<i>joan</i> = <i>fan</i>	[ <i>fan</i> ]
<i>dauka</i> = <i>daka</i>	[ <i>daka</i> ]
<i>ihauteriak</i> = <i>iyotiek</i>	[ <i>i<del>y</del>otjek</i> ]

Leherkari eta *r* artean, *e* desagertzean, sinkopa sortzen da.

<i>bederatzi</i> = <i>bedratzi</i>	[ <i>bed<del>r</del>aci</i> ]
<i>andere</i> = <i>andre</i>	[ <i>a<del>n</del>dre</i> ]

Beste batzuetan erorketa hori gertatzen da, ingurune berezi bat euki gabe:

<i>behar</i> = <i>ber</i>	[ <i>b<del>e</del>r</i> ]
<i>berriz</i> = <i>bes</i>	[ <i>b<del>e</del>s</i> ]
<i>geiago</i> = <i>geyo</i>	[ <i>ge<del>y</del>o</i> ]
<i>baiekin</i> = <i>aiki</i>	[ <i>a<del>i</del>ki</i> ]

Hitz batzuk, bi eratan ahoskatzen dira. *A* edo *o* bokalak erabiltzen di.

gaua = gobe edo gaube  
ongi = ongi edo aungi

### 3.4. Aferesia. Hitz hasierako bokal erorketa

Batzuetan, hitz hasieran *e* bokalaren soinua desagertzen da:

<i>egin</i> = <i>iŋ</i>	[iŋ]
<i>eraman</i> = <i>yaman</i>	[yaman]
<i>ekarri</i> = <i>karri</i>	[kaɾi]
<i>erazi</i> = <i>aazi</i>	[a:si]
<i>emakumea</i> = <i>makomie</i>	[makomje]

## B. DIPTONGOAK

### 1. Beheranzko diptongoak

Beheranzko diptongoak hauek ditugu: [ai-ei-oi-au-eu]

<i>hamalau</i>	[ama <sup>h</sup> lau]
<i>aiene</i>	[a <sup>h</sup> ene]
<i>bei</i>	[be <sup>h</sup> ]
<i>eur<sup>2</sup></i>	[eu <sup>h</sup> ri]
<i>noiz</i>	[no <sup>h</sup> is]
Jangoiko	[xango <sup>h</sup> ko]

### 1.2. "ai" "ei" biburtzen da

*ai* diptongoaren itxiera, guztiz arrunta da, salbuespenak baldin badaude ere.

<i>naiz</i> = <i>neiz</i>	[ne <sup>h</sup> is]
<i>bai</i> = <i>bei</i>	[be <sup>h</sup> ]
<i>baina</i> = <i>beia</i>	[be <sup>h</sup> ja]

baina: aiene

salbatzaile

baina: otsain eta otsein

aingeru eta eingeru

2. Nahiz eta Moutard-ek dioen, Nafarroan erabiltzen den Gipuzkeraren eremuetan ez dela *-eu-* diptongorik bere ustez erabiltzen (ikus MOUTARD, "Etude phonologique sur les Dialectes Basques" III. FLV 22, 1976, 20.or.), *-euri-*, *-euli-*, *-euskera-* hitzek Lizarragako euskeran badaude.

Nahiz eta arrunta ez izan, *ei* monoptonga daiteke.

leize = leze

1.3. “*Au*” diptongoan, *a* bokalak har dezake tinbre belarea, *o* bokalera gerturatuz, “*ou*” diptongoa azaltzen delarik.

gaur = gour  
erauntsi = erountsi  
lau = lou

#### 1.4. Beheranzko diptongoen sorketa

Bi bokal hauen tartean kontsonante bat aurkitzen bada hau *g*, *r*, *sa-*  
*murra edo d izanik*, kontsonante hauek erortzeko joera dute, diptongoa gerta dadin:

<i>mediku</i> = <i>meiku</i>	[ <i>meiku</i> ]
<i>gosari</i> = <i>gosai</i>	[ <i>gošai</i> ]
<i>ezagutu</i> = <i>ezautu</i>	[ <i>esautu</i> ]

*G* kontsonantea sartuz ere, triptongoa apurtu eta diptongoa sor daiteke.

<i>haien</i> = <i>haigen</i>	[ <i>aigen</i> ]
<i>haiei</i> = <i>haigi</i>	[ <i>aigi</i> ]
<i>hoiei</i> = <i>hoigi</i>	[ <i>oigi</i> ]

#### 1.4. Beheranzko diptongoen desagerketa

Batzuetan bi soinu hauek bat egiten dute, era honetan diptongoa desagertzen delarik:

<i>arraultza</i> = <i>arrantza</i>	[ <i>ařonca</i> ]
<i>bakoitza</i> = <i>bakotxa</i>	[ <i>bakoča</i> ]
<i>ihauteri</i> = <i>iyote</i>	[ <i>iřote</i> ]
<i>zeuzkan</i> = <i>zazkan</i>	[ <i>saskan</i> ]
<i>behintzat</i> = <i>mintzet</i>	[ <i>mincet</i> ]

#### 1.5. Bustidura

Diptongo hurrengo kontsonantea *n*, *l* edo *t* bada, kontsonante hau busti egiten da.

<i>mailu</i> = <i>mellu</i>	[ <i>meļu</i> ]
<i>zaine</i> = <i>zeñe</i>	[ <i>seņe</i> ]
<i>larrein</i> = <i>larreñ</i>	[ <i>lařeņ</i> ]
<i>aita</i> = <i>ette</i>	[ <i>ețe</i> ]

Askotan gauza bera gertatzen da diptongo honen hurrengo kontsonantea *s* edo *z* bada, kasu honetan kontsonanteak busti egiten dira eta diptongoaren *i* bokala desagertu egiten da:

<i>jaisten = jexten</i>	[ješten]
<i>gaiso = gexue</i>	[gešwe]
<i>bereizten = bexten</i>	[bešten]

## 2. Goranzko diptongoak

Goranzko diptongo hauek gerta daitezke:

[wi - ja - je - jo - wa - we]

### 2.1. Hitz barruan, bokal artean dagoen kontsonantea erori eta lehenengo bokalak tinbrea ixterakoan, hitz euskaldunetan sortzen dira diptongo hauek:

<i>gero = gio</i>	[gjo]
<i>beratzen = biatzen</i>	[bjacen]
<i>berandu = biandu</i>	[bjandu]
<i>beharra = bierra</i>	[bjẽra]
<i>gure = gue</i>	[gwe]
<i>nora = nua</i>	[mwa]

### 2.2. Hitz *o* edo *e*-z bukatzen bada, *a* mugatzailea hartzerakoan *u* edo *i* aldeko itxiera nabarmentzen da, goranzko diptongoa sortuz.

<i>ondoa = ondue</i>	[oɳdwe]
<i>etxea = etxie</i>	[ečje]
<i>luzea = luzie</i>	[lusje]

### 2.3. Goranzko diptongoak hitz maileguetan ere gertatzen dira.

<i>iguel</i>	[igwel]
<i>lejie</i>	[lexje]
<i>pieza</i>	[pjesa]
<i>kuartue</i>	[kwartwe]

## D. KONTSONANTEAK

### 1. Kontsonante leherkari ahokariak

- [p]: leherkari, ezpainbikoa, gorra
- [t]: leherkari, horzkari, gorra
- [k]: leherkari, belare, gorra
- [b]: leherkari, ezpainbikoa, ozena
- [d]: leherkari, horzkari, ozena
- [g]: leherkari, belare, ozena



1.1. *Leherkari ahokari artean alternantzia*

Nahiz eta arrunta ez izan, *p* eta *b* artean alternantzia.

pekatu = bekatu eta bekatu  
bezala = bekela eta pekela

Alternantzia *d* eta *g*-ren artean.

sudur = sugur [sugur̥]

Alternantzia *g* eta *b*-ren artean.

guntzurin = buntzurin [buncur̥in]  
guraizak = buxek

Alternantzia *k* eta *g*-ren artean.

kostatu = gostatu [goštatu]

1.2. *Metatesia*

*K* eta *z* fonemak lekuz aldatuta daude hitz honetan.

azkazal = azazkal

1.3. *Leherkari ahokari ozenen desagerketa*

Hitzaren erdian bi bokal artean suertatzen direnean leherkari ahokari ozenek desagertzeko joera dute

ilabete = illate [il̥ate]  
ezagutu = ezautu [esautu]  
aditu = attu [at̥u]

1.4. *Leherkari ahokari gorren desagerketa*

Arrunta ez bada ere, *k* kontsonante leherkari gorra, bi bokal artean, eror daiteke.

ebaki = ebai [eβai]

*T* kontsonante leherkari gorra, aditzetan, bi bokal artean desagertzen da.

dute = due [dwe]  
zarete = zarie [sarje]

*T* leherkari gorra, beste posizio batzuetan ere, erortzen da.

guzti = guzi [gusi]

Ablatibo kasua adierazteko *-ti*-atzizkia erabiltzen da, bukaerako *k* kontsonantea desagertzen delarik.

menditetik = menditeti  
goititik = goititi

1.5. *Kontsonante leherkari ahokari ozenak, z ondoren*

D leherkari ozena, z kontsonantearen ondoren gorra bihurtzen da.

ez dakit = eztakit  
 ez dugu = eztugu  
 ez ditut = ezttut  
 ez da = ezta

b - g mantentzeko joera:

ez balitz = ez balitz  
 ez badu = ez bo  
 ez genuen = ez giñuen

## 2. Kontsonante leherkari sudurkariak

Kontsonante leherkari sudurkari hauek ditugu:

[m]: leherkari sudurkari, ezpainbikoa, ozena  
 [n]: leherkari sudurkari, albeolare, ozena  
 [ɲ]: leherkari sudurkari, sabaikari, ozena

2.1. *-N-ren bustidura*

N kontsonantea *i* bokal ondoren doanean busti egiten da, horrela albeolare dugun soinu hori, sabaikari bihurtzen delarik:

<i>erein</i> = ereñ	[ereɲ]
<i>gainera</i> = geña	[geɲa]
<i>gaztain</i> = gazteñ	[gasteɲ]
baina: baina = beia	

-In-silaba ondoren, kontsonante horzkari edo belarea badoa, n kontsonantea ez da sabaikari bihurtzen.

txingor  
 txingurri

2.2. *-N-ren erorketa*

Zenbait hitzetan *n* silabaren bukaeran aurkitzen baldin bada, *n* hori hitz soiletan, erori egiten da.

2.2.1. *Hitzaren tartean, kontsonante aurrean*

<i>nintzen</i> = nitzen	[nicen]
<i>haruntz</i> = arrutz	[aɾuc]
<i>bunkitu</i> = ikutu	[ikutu]

2.2.2. *Hitzaren bukaeran*

Zenbait hitzetan bukaerako *n* kontsonantea galdu egiten da, nasalizazio aztarnarik gelditzen ez delarik:

<i>artzain</i> = artzei	[arceɪ̯]
<i>horrekin</i> = orreki	[õreki]
<i>usain</i> = usei	[ũseɪ̯]

*Asoziatibo kasua adierazteko -ki-atzizkia erabiltzen da, -n-bukaerako galera guztiz arrunta da.*

semearekin dago = semiaki dau

2.3. *Kontsonante sudurkariaren eraginez, bokal aldaketa, hitz honetan*

etzan = etzin

## 3. Kontsonante dardakariak

Kontsonante dardakarietan bi soinu hauek ditugu:

[r]: dardakari, apikai albeolare, ozena

[r̄]: dardakari, apikal albeolare, ozena. Soinu honek aurrekoak baino bibrazio gehiago du.

3.1. *R samurraren erorketa*

*R* samurra maiztasun haundiarekin, hitzaren barrenean bi bokal artean erori egiten da:

noren = non	[non]
gero = gio	[gjo]
gure = gue	[gwe:]
berandu = biandu	[bjãndu]

Nora galderari erantzuten dioten hitzetan ere *r* soinu samurra galdu egiten da:

<i>elizara</i> = elizaa	[elisa:]
etxetara = <i>etxetaa</i>	[eçeta:]
hartara = artaa	[aĩta:]

3.2. *R gogorraren erorketa*

*R* gogorra hitzaren barrenean oso gutxitan erortzen da Zer galdegilearen *r* gogorra eta haren deribatuetan erortzen da bereziki:

<i>zer esan = ze esan</i>	[seʃan]
<i>Nork egin = nok in</i>	[nokin]
<i>aratsaldean = atsaldien</i>	[aʔaʔdjen]

### 3.3. *R samurra r gogorra bihurtzen da*

Erakusleetan *r* samurra *r* gogorra bihurtzeko joera dago.

<i>haruntz = arrutz</i>	[aʔuc]
<i>hari = arri</i>	[aʔi]
<i>haren = arren</i>	[aʔen]

### 3.4. *R gogorra hitzaren hasieran*

Hizkera honetan euskal hitzetan ez dugu *r* gogorrik hitzaren hasieran, baina maileguetan bai.

Maileguetan *r* gogor honen aurrean askotan beste bokal bat jartzen da. Jartzen direnetan *a* edo *e* bokalak izaten dira.

- a) Mailegua *r* gogorrez hasten bada eta haren lehenengo bokala *a* bada, hitzari jartzen zaion bokala *a* izanen da orokorki.

<i>raza = arraza</i>	[aʔasa]
<i>razon = arrazoia</i>	

- b) *R* gogorraren ondoren agertzen den lehen bokala *e* bada, aurretik jarriko dena *e* bokala izango da:

<i>respeto = errespetue</i>	[eʔeʃpetwe]
<i>renta = errenta</i>	[eʔeʃta]
<i>reparar = errepasatu</i>	[eʔeʃaʃatu]

- c) *R* gogorraren ondoren agertzen den lehen bokala *o* bada, aurretik jarriko dena *a* edo *e* bokala izango da.

<i>ropa = arropa</i>	[aʔopa]
<i>rosa = arrosa</i>	[aʔoʃa]
<i>rosario = errosayue</i>	[eʔoʃaʃwe]

- e) *R* gogorraren ondoren agertzen den lehen bokala *u* bada, aurretik jarriko dena *e* bokala izango da.

<i>rueda = errueda</i>	[eʔweða]
------------------------	----------

- f) Hala ere aurretik inongo bokalik jarri gabe, hitz batzuetan, beste hizkuntzatik hartu bezalaxe *r* gogorrez hasten da:

<i>radio</i> = <i>radiyue</i>	[ <i>radij̥we</i> ]
<i>rato</i> = <i>ratu</i>	[ <i>r̥atu</i> ]
<i>rebaja</i> = <i>rebaja</i>	[ <i>r̥ɛbaxa</i> ]

#### 4. Alboko kontsonanteak

Alboko kontsonanteetan bi soinu hauek ditugu

[l]: alboko, albeolare, ozena.

[l̥]: alboko, sabaikari, ozena

##### 4.1. -L-ren bustidura

L alboko kontsonante albeolaren aurretik *i* bokala aurkitzen bada, *l* soinu hau busti egiten da sabaikari bihurtuz:

<i>bilabete</i> = <i>illate</i>	[ <i>ilate</i> ]
<i>ile</i> = <i>ille</i>	[ <i>ile</i> ]
<i>ilun</i> = <i>illun</i>	[ <i>ilun</i> ]

baina: pilotak = pilotak [pilotak]

L kontsonantearen aurretik doan *i* hori, diptongoa bada, soinu hori sabaikari bihurtzeaz gainera *i* hori desagertu egiten da:

<i>mailua</i> = <i>mellube</i>	[ <i>melube</i> ]
<i>ailegatu</i> = <i>ellatu</i>	[ <i>elatu</i> ]

#### 5. Kontsonante txistukariak

Kontsonante txistukarietan soinu hauek ditugu:

— Txistukari frikariak:

[ś]: Txistukari frikari, apikal albeolare, gorra

[s]: Txistukari frikari, bizkar albeolare, gorra

[š]: Txistukari frikari, bizkar sabaikari, gorra.

— Txistukari afrikariak

[č]: Txistukari afrikari, apikal albeolare, gorra

[c]: Txistukari afrikari, bizkar albeolare, gorra

[č̥]: Txistukari afrikari, bizkar sabaikari, gorra

##### 5.1. Kontsonante txistukariak hitz hasieran

###### 5.1.1. Txistukari frikariak

Hitz hasieran kontsonante txistukarien artean frikarien aldeko joera agertzen da:

sekatu	[sekatu]
salda	[sa]da]
zenbat	[sembat]
zuen	[swen]

[ʃ] berezko soinua duten hitzik ez dugu aurkitu. Soinu hau agertzen denetan hitzari adierazkortasuna eman nahian agertzen da, beraz [s] edo [ʃ] izango litzatekeen soinuaren orde. Gainera hitz berak bi eratara entzuten dira:

<i>xamar</i>	[šamař]
<i>xuabe</i>	[šwaβe]
<i>xinistetu</i>	[šinistetu]
xarra	[šafa]

### 5.1.2. Txistukari afrikariak

Hitz hasieran txistukari afrikariak ere entzuten dira; frikariak baino maiztasun txikiagorekin agertzen den soinu afrikari bakarra [č] da, soinu hau bi zentzutan agertzen da:

— Balio adierazkorrarekin, beraz [s] litzatekena:

<i>txuri</i>	[čuri]
<i>txerri</i>	[čeri]
<i>txintxo</i>	[činčo]
txuitu	[čwitu]

— Hitzaren hasierako berezko [č] soinua:

<i>txikia</i>	[čikja]
<i>txokolate</i>	[čokolate]
<i>txarki</i>	[čarki]
txarra	[čara]

## 5.2. Kontsonante txistukariak hitz barnean

### 5.2.1. [š] soinua *t* eta *k*-ren aurrean

a) Normalean hizkera honetan *t* eta *k*-ren aurrean [š] soinua entzuten da:

<i>asko</i>	[aško]
<i>kaskal</i>	[kaškal]
eskutoka	[eškutoka]
<i>estutasun</i>	[eštutašun]
ustu	[uštu]

b) 1. Hala ere, nahiz maiztasun eskasagoarekin agertzen da, [š] soinua ere, *t* eta *k*-ren aurrean:

piskat	pixkat
jaisten	jexten

eskin	exkin
sinistetu	sinixtetu

2. *T* eta *k*-ren aurrean agertzen den [ʃ] hau, batzuetan hitzari adierazkortasuna ematearren erabiltzen da:

koska	ko <sup>x</sup> ka
mordoska	mordoxka
istori	ixtori
mozkortu	moxkortu

### 5.2.2. [s] frikariak hasten diren hitzak

Batzuetan hitza [s] frikariak hasten bada, eta, aurreko hitza *l*, *r* gogorrez *edo n*-ez bukatzen bada, bi hitzak elkartu egiten dira; soinu frikaria, artikulazio puntu bereko afrikatu bihurtzen delarik: hau da [ç].

egoten zan = yotentzan	[yotencan]
bil ezazu = biltzezu	[bilcesu]

baina: gostatzen zakigun  
esan zuen  
etortzen zian

### 5.2.3. Kontsonante txistukariak hitz barruan *n*, *l*, *r* gogorraren ondoren

Hitz barruan *n*, *l* eta *r* gogorraren ondoren ez dira soinu frikariak agertzen, beti afrikatuak izaten dira:

zortzi	[sořci]
iltze	[ilce]
bentzaye	[bencaŷe]

### 5.2.4. Hitz bukaerako afrikariak

Hitzaren bukaeran ez da soinu frikaririk ematen, neutralizazioa ematen da afrikarien alde.

Baina hitzaren bukaerako kontsonante txistukari afrikariari kontsonantez hasitako atzizkia eransten bazaio, afrikatua den soinu hori frika ri bihurtzen zaigu.

uts = ustu
berats = berastu
beltz = beztu

### 5.2.5. Hitz bukaerako frikariak

Instrumental kasua adierazteko *z* kontsonantearen ordez, *s* kontsonantea erabiltzen dugu.

Pozez atera da = Pozes ata da

Hizkera honetan txistukari frikarien artean edo afrikarien artean ez da neutralizaziorik edo nahasketarik gertatzen, soinu hauek oso ondo bereizten ditugu.

## 6. Jota soinua

Fonetikoki letra honen soinua [x] da, hau da: kontsonante frikari, belare, gorra.

jendu	[xẽ̞du]
jende	[xẽ̞de]
jantzi	[xanci]

Baina doinu leherkari sabaikari, ozena [j̥] agertzen da hitz batzu ahozkatzerakoan:

<i>inor</i> = <i>iyor</i>	[i̥j̥or]
<i>igande</i> = <i>iyende</i>	[i̥jẽ̞de]
<i>eraman</i> = <i>yaman</i>	[j̥aman]
<i>erakutsi</i> = <i>yakusi</i>	[j̥akusi]
<i>egon</i> = <i>yon</i>	[j̥on]
<i>edan</i> = <i>yan</i>	[j̥an]
<i>orduan</i> = <i>yos</i>	[j̥oʃ]
<i>gero</i> = <i>yo</i>	[j̥o]

## 7. Efe soinua

Soinu hau frikari, ezpain horzkari, gorra da. Horrela transkribatzen dugu [f].

### 7.1. Efe-ren agerpena

Hizkera honetan [f] soinua ematen da. Adibidez:

fedie  
afaldu  
joan = fan  
ofrezitu

### 7.2. Hitz batzutan, *p* eta *b* kontsonanteen ordez, *f* agertzen da.

*pake* = fake  
*pago* = fago  
*kabi* = kafi

### 7.3. *F* kontsonantearen ordez, *p* agertzen da hitz honetan.

*Nafar* = napar



## 8. Hatxe

8.1. *Aspirazioa*

Lizarragako euskeran ez da aspiraziorik ematen.

8.2. *Bi bokal berdinen arteko hatxea*

Bi bokal berdinen artean hatxea idazten den hitzetan, hau ez da ahoskatzen eta gertatzen den hiatua apurtzen da.

zahar = zar  
mahats = mats  
leher = ler  
mihi = mi  
ohol = ol

8.3. *Hatxearen kontsonantizazioa*

Hizkera honetan bi bokal desberdinen arteko hatxea kontsonante bihurtu da:

<i>ibes</i> = <i>iyes</i>	[i <sup>y</sup> es]
<i>oibu</i> = <i>oyu</i>	[o <sup>y</sup> u]
<i>zihoan</i> = <i>ziyuen</i>	[si <sup>y</sup> wen]

## 9. G soinua

9.1. *G leberkari abokari, belare, ozena [g] mantentzen da*

<i>gure</i> = gue	[gwe]
<i>gaude</i> = goi	[goi]
<i>gainera</i> = geña	[geña]

9.2. *Hitz batzuetan nahiz eta beraz ez eduki g kontsonantea, ahoskatzerakoan g hori sortzen da, hitz hasieran*

<i>orain</i> = guai	[gwai]
<i>ohea</i> = guatze	[gwace]
<i>konturatu</i> = quartu	[gwa <sup>r</sup> tu]

## E. TRANSKRIBAPENA

*Grabazio honetan, batez ere, pertsona batek hartzen du parte. Lizarragan jaio eta oraindik herrian bizi den pertsona da: ISABEL ANDUEZA, 82 urte. Txilibistone deitutako etxean bizi dena.*

*Beste lau pertsonek tarteka parte hartzen dute aipaturiko grabazioan eta hauek dira:*  
— FRANCISCA GOLDARACENA  
85 urte.

– GERTRUDIS ELSO

57 urte.

– PAKITA NAVARRO

30 urte.

– GREGORIA SOLIS

30 urte.

*Grabazioa Txilibistoneko etxean egin genuen.*

*Kontutan hartu behar da, Isabelek abesten dituen kantak, batez ere, Baldaxar Beltxerenarena, ez dela bizkuntza aldetik Lizarragan mintzatzen garen antzekoa, Gipuzkoakoa baizik.*

Garei bet garei betien, nik eztot asko ezautu beia alai pixkat bei, liyue ittentzan ereñ, liyure eztakit zenbat illates yotentzan lurrien eta zeñetati ata ber izaten giñuen luzie, aundiye ittentzan eta gio aziyure ez neiz akordatzen nola jentzen giñon aziye ekartzen zuen liyuek, linaza bakizie eta gio itten giñuzkien lotu paxuek, paxuek lotu eta ubeldia yaman eta ubeldien gutxine ogei egunes o amabostes o utsien ondo utsien idui biatzen, biatzen eta gio, utseti atatzten giñuzkienien, sekatu. Ure ola ittentzan, sekatu eta trunku betien iltziateki jarri ola, eta aigi segiduen euskiasko mellubaki zeñure jo aprobetxatziati ariye itteko, ariye itteko eta, mulittu artien jo eta, botatzen zakiyuerien kaskal ure eta gio ure denei olexe, denei jo puntak zeñetati atatzeko, zeñure gio artu ta eskutokan, eskutokan garbatu, garba da, alako katxarro, ola konpaziyuatia eta emen jarri eskubeteki eta zera zureskue eta bestiatien artu ori izango balitzeke bekela olexen kras, kras, eta dena botatzen zakiyuerien, izpi guzie kanpua eta gelditzen zan amukue, goxure ariye itteko ure eta, ure ola artzen zuen orreki garbarrek, olexe kras, kras, eta dena piztutzen zan eta gelditzen zan ille geldittuko litzeken bezela, goxue, goxue, olexe biltzen giñuzkien eta montonia, eta garba, garba garei betien garba josus garba zakiyon ba katxarruarri eta gio, gio oigi liyuei, yonko zian dee zen etxetan dee beia gue etxetan dee bazan olexeko lordotsa, iltzeskue, iltzeskue, iltziek orratzak bezela, gio orraitzeten olexen amukueik pasatu eta, latzak gelditzen zian aldiatia eta liyue ittekue gelditzen zan goxo, goxo bestia eta gio latzure fuera eta, bestiure ariye itteko, ariye itten giñuen, eztakit nun jartzen giñuen, nik makinien itten nuen, nik eztakit nola itten nuen, ez neiz akordatzen nola dan dee eta amukueki nola itten giñuen, alaide amukueik goxo, goxo mintzet jartzen giñuzkien ta makinien arriye in, gio, ariyeik bildu eta alako katxarro zureskuatzuk izaten zian en kiderraki eta madejak in, madejak itten giñuzkien madejak, gio, madejaik atziabes lotu, nola tripotak itteko ariyoiteti, nola etortzen dian madejetan ba aik bezelexen, iguel iguela eta gio lixutu, lixutu ariyeik autsaki, suko autsaki, bota suko auts puskat mendderiatien eta egosi lixure. Garei betien zek eztezie ezautu, beia egosi itten zian lixuek eta zen goxue izaten zan lixu lixuko arropa ta bota bagiño sikia lejie puskat, sikia arrijaik zuitzen fateko, beia lejie dendan eta jabona bes eztakit nun, gio bes iruzkiten sekatu, luze luzie jartzen giñuzkien legarretan larreñetan eta goxo iruzkiyek asko txuitzen zituen lixu beteti bestia asko zuitzen zian beia oñi dee beste lixu bet eman ber eta bes dee venga lixutu, bes dee suko auts puskateki ure iyendiatien jarri eta venga, uts egosiye bes dee bota, eta utse berde berdie atatzentzan azpiti eta noizbette aburritzen giñenien lixutzes gio, madejei pilotak in, pilotak itten giñuzkien madejeik, madejeiki klaro pilotak, pilotak ematen giñuzkien, artu zaku txui betien auntzeleta, auntzeliek, gue amarrek esatentzon e algodona nastutzeko menderi oigi eta algodoneki nastuben oso menddere goxuek atatzten zian ba eta

guañi dee badoi mendderioik gue etxien, mendderioiteti dee badoi guai ye eztakigu San Adriñetako dee eztia eztou ber ezaten eta eztakit zeñendako izan dian dee eta or doi kutxen eta gue arurreko zarrak nolako fiñek dazkuen e auntzeletan e berak eskus inde, gue amazarrak berak inde ta fin, fin, fin, fiñe ikusko baziñuzkie zen beratxa dan, kutxat betek doi ta gue etxien piezak, eunek goxuek, eskuben iñikekuek; nik eztot ikesi alai itten, beia ikesi zerbett bei, beia nik lengo garei beteko fintasuneik ez eta yasta ori ortan akatzen da. Nik eztakit mintzet geyo ze esan mendderiek itten giñuzkien eta yasta.

## EZKONTZAK

Gue garei betek gue gareyiteko ezkontzak izatentzian, bodoi ellatzen-tzan eta elizeko zeremonioi ittentzan eta gosaya, argitziako eliza eta gio gosaya, klaro neguben balin bazan boda, egune motza yotentzan eta gosaye eta bazkaye eta afairik ezan itten, beia, gosaye eta bazkaye itteko pues, goizter ibil beziñuen. Illumetan fan giñen mintzet eliza, akordatute dee eztut onik itten, gio etorri andi eta gosaya, gio gosaldu eta bazkaye biyertie, arrijiek ematentzian etxetaa, nua ezkontzen ziñen etxi artaa arrijie, koltxona emakumiek, andriek bi koltxon eta koltxille que no falte, gareyieten koltxillek eta mantak ee eman zian akaso bei mantak akaso dee ustiot bei gio mendderiek, dozenat menddere nola zezakeen gio ator monton bat eta mutxile bete ator, atorrak, sujetadore eta oik denak bei eta gonak e bei eta denak bordatute, eta demontrian dibujueki geña ator aik gio gio arrijioi gio, oik denak kajetan ekartzen zian e azpiko gauzok, menddere eta kontuboik denak kajetan o, ola beia koltxonak agiriyen bizkerrien ekartzen zian, bi koltxon eta bi buko jantzik eta, bueno koltxona izatentzan bezela eta bukue bera geñeko zuyaki gio bodako etxi artan eztakit alai dee noiz ikustentzan arrijie.

G-Aurreti bazkal aurreti, bazkal aurreti, bazkal aurreti ama lendabixiko sariye ittentzan eta, gosai urrien, gizekiyek tabernan e musikaki eta akordionaki.

I-Bei beia aitzen zuenien useye etortzen zian eta arrijie txerdipurdiketu ittentzuen. Gue amak aik garraxiyek gozo gauzok ezte ori merezi, denak botatzen zian, arraza guzie ekartzen ziñuen guzie, dena montonia, batek au eztakit nondako bestioi nik eztakit nolako, disparatiek bakizu, disparatiek esatentzian e gazte kontuken, gaztiek eta gio josus, Koxkoneko Ramonure zan zelebriaki, aieneni, ze irriyek, arrijure botatzeko denboran, beia mutiko zoitonekuaik etortzen zian bee musikaki eta lo primero itten zuen arrejjarren geña denak eta artu eta dena txerripurdiken arrutze además, eta gue amak intzuen kolerat, etxe artan ure kolera, itxure artan ikustie arropak txilipurdiketuk, eta, koltxon aigen geña denak eta bakizu ezta agradablie izaten dee, kostunbri ure jendu zan bei eta aungi dau jenduk, guai goin ixixille mintzet, yo armayo lune dee ekar giñuen mintzet, ekar giñuen armayo lune bakotxak bee etxetan, geyau ze, kofren bat e bei arropa zuyeki, arropa azpiko, arropa guziaki, baulat e bei tokadorie, armayo lune ta lababue eta guatzie, guk guatzie ez giñuen ekarri, in giñuzkien truketu guk mueblikek, an geldittu zian guriek eta guk nolabett in giñuen ezkontza batez beste, gue etxien zoinek an kuartue prepatu, an geldittu zian, ta guk ez giñuen ekarri. Armayo lunek eta

ekartzen zian, dia, beia guk ez giñuen, ordes orde in giñuen, eta emen prepatu zuen kuartue eta an prepatu giñuen kuartue eta ez giñuzkien kanbietu guk, beia ala izaten zan komoda o izaten zan gareyeiten, guk armayo lune in giñuen beia komodak yonkottezie zek ee komodak etxetan, ez goneskios ondatuk.

G-Armayo lune ze izaten da?

I-Armayo lune da e armayo luzioik, beia ordua biyertie emen kostunbrie komodak, pobriokuek, ye oik, ye bestiok abatsokuanenak.

P-Komoda da kajonaki bei.

G-Komodak dena, goiko kajona eta bi atei.

I-Bi atei eta kajon oiten, goiko kajona ta bi atei eta kajon oiten arropa yoteko eta gio bazkaye eta bazkai ure iñ eta musikaki juerga, eta ola boda artan akatzentzan.

Boda pozes eta etxia goses. Esayera zan.

## IYOTIEK

Pues iyotiek izatentzian, ibiltzen giñen e limosnan, ibiltzen giñen o iyote itteko urdei pixkat, denok ola eta ematentzuen batzuk lukeike puxkat, bestiatzuk urdei puskat, bestiatzuk arrontzan bat eta aik deneki itten giñuen etxeti eta arrontzan bat o lo que sea geyo eta tortillek, tortillek itten giñuzkien eta atazen giñuen alogi pixkana denok alogi, alogi puxkana, eskutuana bakotxak eta ure egosi urdeyaki ta ara neikue gobien neiko alogi gustora jaten giñuen zopa eta itten giñenen alogiyarreki zopa.

G-Eta dena nasiyen.

I-Ez, ez saldaki kazul zopa eta zopure izugarri goxue izatentzan eta gio eztakit ze jango giñuen, urdei egosiyure, urdei egosi berriyure, gloria bendita, guai ez jaten beia, ordubien ez giñuen pratzen ta zen goxue izatentzan eta gio iyotetan tortillek eta ittentzian, iyotetan tortille zan, iyotiek ola zian.

P-Etxes etxe ze ibiltzen zian neskatuek eta mutikuek.

I-Bei nik eztakit pa nik mutikuek e ibiltzen ote zian... bei gio gobien faten gittuen, faten gittuen mutikuek gugana ta guk tortille o txokolatie emanko giñon ta aik e zerbette inko zuen ta, bueno ala pasatzen zan dantzan, dantzan mutikuoik, ekartzen zuerien akordiona, bestek ez zion emen akordiona bakarrik eta la juerga, neiko dantzatu ta, guai iyote itteko etxioi billetzie gostatzen zakigun beia etxiat billetzen giñuen e ure ozioso xamar ziona o bakizu au pekelakuat eta gio ure getako gobure aiketa amabitano, beñ gareyoi ta ellatuskios ez zion iyorede yotek, amarretaskios erre-tiro ori bei, eta orra gue iyote tristiure.

G-Kantatu o ittentziñuerien, kantatu o inko ziñuerien.

I-Zerbett bei e zerbett e kantatzen giñuen:

Mozorro zarko, geteriarko  
amalau uzker, afariako

Ta alako tontakei betzuk, eztakit gobonetan bei, gobonetan akordatzen neiz, ni kantatzen gobonetan e nik izugarrisko kanta polittek ikesi nei amiñ arrek e gobon e gobonetako kantak, zeñ polittek!

G-Euskias inko ziñuke kantatu, asi ba.

I-Bei, bei konpaziotako gobonak ellatzentzian gobon oiten etxien afaltzen giñuen, alaide ustiot, eta gazteñek erretzen giñuzkien ta kafesnie o txokolatie o moldatzen giñuen ta mutikuoik e fatentzian beia aurreti ibiltzen giñen e gobonetako kantak kantatzen, e etxes etxe ibiltzen giñen eta nee arrek euskias yakusi, zeñ poleki uste zu, esto:

ogeitalaugarrena  
degu abenduan  
deseo genduena  
iritsi gendunan  
gabeko amabiak  
joduten orduba  
gure salbatzaillea  
jayo da mundura (bis).

Nik estrofak bestiek aztuk, Baldaxar Beltxerena bakarrik dakat goguen.

Baldaxar Beltxerena  
dator iru garren  
gizonari bezela  
mirra eskeñitzen  
Era onetan dio  
aiei adierazten  
aurtxo illegin dala  
guk salbatziarren.  
Iru errege  
Meltxor da Gaspar da Baldaxar  
Baña irurek bazekien  
Trinidadia nola zan  
trinidadia, trinidadia  
zu zara gure erregia  
etxe onetan sartu, ez  
Ai, au gobaren zoragarria,  
Jesus jayo da Belenen.  
Etxi onetan, sartu ote dan  
bila gabiltza beraren.

Eta nik euskiashuekin moldatu nitzen eta allá va, guk oiki segitzen giñuen, beia nik iru erregioigena, zeñ beño zeñ polittokuek ziana, Baldaxarrena bakarrik bestek e ainbeste urtes amalau urte nazkan ta irurogei ta amazazpi dazkat, emezortzi bete bettut denbuas, ta orra gio e gio bettu, nik bakizu ze dazkit e *Jesu Kriston bost llagak*, oso politte euskias.

G-Ez, ez iguel da, iguel da, zengati nola bett ori eztan gue euskera, da desberdiñe, iguel da, nola bett kanta kantatu zun, guai segi izketan ye, zengati kantoik dia, bei oso aungi kantatuzu beia gue euskera ezta.

I-In nuken ori zuk esan baziño, bost llagak eztakizie interesatzen, emen-go izkera ikuskozu, ye aldoten obekine itten doten.

Bost llaga sagraduen adoraziyue,  
 nere almuadon orretakue, zue semiek artu  
 zituen negatik bost llaga preziosuak  
 eta oiek adoratzen zuk irudi ziñuen  
 espiritu eta amoriyue irui nahi nuke  
 Ezkerreko oñeko nere Jesusen llaga  
 preziosua biotz guztiz adoratzen zattut  
 eta orregati eskatzen dizut nere pausa  
 eta ibillera gaiztoaz egin dizkizuten  
 ofentse guztien barkaziyue.  
 Eskubiko oñeko llagari, nere Jesusen  
 llaga preziosua biotz guztiz salbatzen  
 zaittut eta orregati eskatzen dizut  
 nere iritzeko geiztoz egin dizkizuten  
 barkaziyue. Ezkerreko eskuko llagari  
 nere Jesusen llaga preziosua biotz  
 guztiz adoratzen zattut eta orregati  
 eskatzen dizut nere begis eta beste  
 sentidos egin dizkizuten ofentsen  
 barkaziyue. Eskuiko eskuko llagari  
 nere Jesusen llaga preziosua biotz  
 guztiz adoratzen zattut eta orregati  
 eskatzen duzut Jauna nere begias  
 eta beste sentiduas egin dizkizuten  
 ofentsen barkaziyue. Eskui eskuko  
 llagari nere Jesusen llaga preziosua  
 biotz guztiz adoratzen zattut eta  
 orregati eskatzen dizut nola nere  
 entendimendu eta borondate txar  
 guztiez egin dizkizuten ofentsen  
 barkaziyue. Kostado sagradoko llagari  
 nere Jesusen llaga preziosua biotz  
 guztiz adoratzen zattut eta orregati  
 eskatzen dizut Jauna nola zure  
 eriyotza izan zen gogorra... betiko  
 gose zela nire arima bestetan galtzeko  
 zoriyen aurkittu ez detten. Nere  
 Jaun jesu Kristo bost llaga... beste  
 zeñ konta baño azote geyau, zure  
 korputz ortan...

G-Beia ori ze da errosayue.

I-Ez, Jesu Kriston bost llagak.

G-Bost llagak dia akaberoi. Yos, gobonak ola ittentzian eta etxien inko ziñuzkierien, denak batia, denak juntetu ta guai bezela.

I-Be geyau ze kontatu dee, ta guai ez takit.

## AKZIDENTE

Ementxe nion radiyuen San Franciscon nobena entzuten eta guai dee, San Franciscon nobenoi asten danien, nee korputzek rau itten do, eztakit jenduko dee nee biziyeen, sekuleko garraxiyek emen eta gue mutikuoi izu-garrisko kara tristiareki ta baziyeen zen etxia eta autzi denak eta ata nitzen eta esan zuen Silibistre e Silibistre tratorak azpiyen arrapatuo, oi mutikua eta nola o ze ta, bei izketan yon da. Nik, nik ori attunon, nik eztakit ze esan zuen, izketan yon da, zuez tiangana eruat bezela geldittua ta, ni nola fame nitzen, ni ez nitzen gauze fateko dee ta, eruat bezela, klaro bueltan etortzia-ko ata nitzen ni, mutikuoi bueltan ataziako, ata nitzen ni etxe aurrekaldi ontaa, eta zan, zen etxia fantzana eta esantzona tiai eta zuez etxiarta, ni ez nitzen gauze dee fateko, auk ez zoin gue jendiok, eta gue jendiok etortzian noizbette ta Goikotxeran etxiartan iyoredez, alaide, zen amarrengana fan in nitzen, alaide, fan giñen oneki, kamineruan Mikelaki eta fuera, denok fuera, eta bueno fuera ba bierko fuera, eta yo zein zian fantzianeik e bei denok bieltzen zittuen, onek etxeti fuera, beia ori, ori... guk bes, esaten non Kontsixon ez ta eñ grabie izanko, gue mutikuarrek esan do izketan dee yon dala eta arrek ez zuen aitzen bakarrik garraxi eta fuera, fuera beia fan ber balen bazu dee, arrek artuk zazkan denak, paperak eta demontre guziek, artuk zazkan arrek fateko Iruña eta or Sapio geldiazi in giñuen andrioi, zue amoi yamateko anbulantzia ta gizonoi, fan bezuena kotxiaki e miñ artu zuen lekua, ezin fan, zue amoi eman bezuen ez zan etortzen eta noizbette etortzan eta azkeniako anbulantzioi amik bai ziyuen kamino zarretati eta arrapatu zuen eta sartu zan anbulantzia ta an e meikube emantzuen, meikubek esan zoren e cualquiera, belexen, prepatzen zana prepatu, a buen aire, belexe, ta intzan au e Usebio zion ziyuen Irurtzune o prepatuk geyo zeñ fantzan arrek ure zan, gio amoi dee, amoi dee sartu zuen anbulantzia, sartu zuen eta fantzan ta guk ango notiziei espia ta zen amorrek notizie e esan zuen e poleki ziola eta eldu zala zortzitekuen eta bakarren bat atatzeko espiatzia eta ola izan zan, atzia andi pixkatia Gertrudis eta Joakin fateko eta ixixille yoteko geña, bai eta iyorede dee ez esateko, esanon da Kontsixonon dee, iyori dee, jendiek denak aitzen telefonuen dee, Kontsixonon dee, Kontsixonon dee eztiñogu esan ber, ta ezetz, ixixille etorri eta ixillik, eta ardiyek jaxten aizan Joakin, eta, otsain giñon ta, fantzan Julian dee, emen tokatu zan gue Guillermo dee permisuaiki, taka etortzan eta fantzian biyek. Ai, ure gaube, iyondi dee zuzentasunik iyoreke ematenez ta ze dee ze dee ez esateko ordubun mintzet andriorrek eta gio zu gio ze ikus giñuzkien ezin lokalizetu, ezin lokalizetu ze ikus giñuzkien, bei klaro klaro, an fantzan, yo pentsatu giñuen Bibianoki fatie zen gana, ez giñuzkien, eskerrak zu mutikuarrek otsañ zuela andi, zeñ mutikuarrek klaro, bestela sin más, fan izan ber izantzuen beia arrek otsatten, zerbett esantzun, beia ori izugarri disimule, orrek e oso disimulemende emantzun mutikuai papera intzon ala ezta? zuk, zuk.

G-Xera o, eske ni ellatu nitzen arrutze pisua, ni nion lanien eta ellatu nitzen amarretan, zan ostigelie, ordubun dee etortzan Xera eta esan zuen ettek zeozter yontzuela eta bueno ye ze in be giñuen eta ordubun nik otsain nuen derrefente residentzia.

I-Bei klaro lo que mejor intziñuen zuk ori.

G-Ordubun ata nakin ama negarres ta.

I-Estutasunien zoin da, ze pasatu zakiyuen, aik dena rekonozitzen ai zian, ai zian, ai zian ta odola ustutzen ai zakiyon da yo guartu zianien odola ustutzen ai zakiyola, allá va, opiatzeko tokia eta ez zoren amai espiantzik eman, eta alai serenidede guziaki e ixo, iyori dee ez esateko ta ixixillik yon giñen. Angeles etortzen zan Angeles erreruanoi etortzan eta ez giñakan ordenik iyorede dee esateko eta auk fantzian eta yo mutur yon giñen andriorreki gio ta grabedadiarri ta espia, espia ta espia ta opiazio artati ezan sekule atutzen da emen giñoin sukuldie bete jende eta yo norbettek, Joxe Martillenekue o etor guen.

G-Bei ama, bei biandu.

I-Oso biandu, yo Bibiano pentsatu giñuen, neskatuorrek nolabett zen paso guziek zazkin, oneki fatie zek eske Iruña ya matia.

G-Beia nik otsain nuen.

I-Bei, beia guk ez giñakigun ori beia zek ye de acuerdo ziñoirien, eta gio ye fantziñerien denok Iruña eta ye ze kuadrue, arrapatu ziñuerien eta ye ze ikuste zun gexu orrek ye ze pasatuttezun.

G-Eske bettu oik denak ezeztia gizona ola ikusite.

I-Esantzorena, esantzorena, ze grabedade esantzoren, bettu zoren eta operaziyue aungi intzorela, beia gibela ez zorela bettu dee in berai eta eman bezuela, lata txarra eman bezola, odolak o gibelak lata aundiye eman bezola eta beita eman ee, ye ze lata eman don beia orren e orren izetie ikusi inbio, orren amor propiyue ikusi inbio yo e gizon orrena, orren amor propiyue ikusi baziño, onek beño obeki ez taki además. Telefonue artzeko izutuk noiz ekarko zittuen e notizie txarrak eta nei neu ze pasatu nakin mutiko, mutikuorrek andi zortzi egunia bes etorri intzan, nik pentsatu dee, ori launbata eta iyendie pasatzia, astelenien fateko, astelenien ez zitteken fan, launbetien etorri eta iyendien fan ber. Esantzuen ze notizie dakazie ba ta guk e ni pal santo ni pal diablo, eztakieu, zertan goin dee eztakieu eta iyende atsaldia nei sortu zakiten ure, zan iyendie zu, gue Gertrudis inttoun neskatua oraziyuok, nik zenbat oraziyo in dot, limosna sakratu denak ofrezittu dozkot, denak beran izenien eta e mutiko arrek esan zuen e mutikuo fatiako gobien etortzan soldadota fatiako ta esan zuen nola dau tio eta tio eztakigu ba nola daun, ezto makurrok ez taka, beia oniakok ez, oniakok ez oñi, espiatu bierra dau, yo mutikuo fantzan eta ni oso alegre nion, kontentu nion, ni Josus, ye aungi ata zala ta neskatu orrek aurreko kontu betzuk esan, bueno ezta pentsatu dee makurrik eta alakuatien sartu nakin tristurat, esan non Gertrudis bagaki nee korputzek ze tristure artuon ta ze dakazu, nik ikiagarrisko nobedadie, makomia inttoun oraziyuek eta inttoun oraziyuok, in giñuzkien oraziyuek eta ni geruen eta geruen estubo, ta ba ni ama trunkilo nau, nei eztakit iduitzen makurrik eta gue Juakiñek ee bei, nei iduitzen dakit Silibistre ye ata inkuala, ni izugarri triste ez nakin pasatzen beia bestela dee adibinadora neiz ta ni, bei, bei ola gauz bet izaten bot an dot, an dot erountsiye, bueno gio gobeko amarretan Otxaliñen Maritxu, gue jendiek gaztak itten, ai, ni makomia, Kotsixonengana fanga eta andri ure destroztak dau eta gue Gertrudis esnie eske fantzan, yontzan illuntzien eta andrie ezin beño kontentubo autzi zuen eta denok pazkuek beño kontentubo giñon, andri ure desiñik eta alai zue amorrek, alai ez ezan Maritxui ze notizie artuk zakan, ze erormena dakan, beia nei eman, zu nei eman nik esaten non nik ikiagarrisko tristure dakiñet, ez tin gauz onik inber eta ama nik eztot ba uste e ortan, ortan giñoin etortzakitenien Maritxu mandatuboi ematia, ai, Maritxu, nik eztakit ze dakaten, beia nee korputzek baka, ikiagarrisko gogorra dau ta nik eztakit ze pasatzen dakiyon, beia makomiure dau arraso



beia arraso akatuk dau, eñ poleki ziola ta guai ori etor dakiyo ba eta yo andi ordu erdibetia o.

G-Ola zion zengati, egun artan ustiot Pakite nekin ziola esan giñonien.

I-Keba, Pakite or zion, amaki zion, an da.

P-Iyendiartan.

I-Iyendiartan da, au dee diximule, tortzan da tia fantzettez tie dau e oso e intrankile dau, eta yo Maritxubarreki pasatu giñuzkien beia nola bett ez giñakin ezere de ta arrek esaten zituen itzek, esan non Kontxon e biyer meza o neidon atatzie, apezai esan koñot mille aldís dee, meza gareye zan, garizume zan, meza goizeti, esan koñot apezai meza o meza atatzeko ta ezala ba mentzionatu, ez mentzionatzeko zeñ zan, beia apezak biziyai, biziyai bezela ofrezitzendore eta il bionai, ilbionai bezela ofrezitzendore, ta esantzón apezak e ez, ez nik eztot mentzionatuko ta oso aungi intzuen, meza oso aungi, ezuen esan zeñ beia mentzionatubai oso aungi intzuen, nola grabiek e bagiñazkan erriyen eta denok eskatzeko bere osasunan alde eta olexen da, ama dee fantzan mezartaa e fantzan ama dee eta ez zuen esan ez ola eta ez ala eta guk eze ez giñakigun ta mezoí dee ola... giñuen eta neroi dee esan non fanko neiz da, neroi beia fantzan Maritxuboi fantzan eta esanik zakan apezai ta además berak patu bezuen, mezoí berak patu dee in bezuen, ustiot ola dee zala gauze, gio amak esantzozkon San Franciscon ofrezimentu eta ze eskatu, San Franciscon nobenayue zan da, San Franciscon nobenayoko egunek zian ta emantzón zerbette, medallatzu o medalle zerbette emantzón eta bueno mintzet mezoí e ortan giñon, ortan giñon, ola giñon da, Joakin da Gertrudis amabiyek o izantzian, ortxe gu tarti ortan jarrite notizie txarrai espia beia, onek ee ez zugun esan onek ee bueno etortzan eta esan zuen e eske tie dau intrankile ta fanko baziñeke Gertrudis zu tia ta bei ni fatie guai ezta komeni klaro, ez giñakin ezere de ni guai fanko banitzeke ure saltokan asiko litzeke, zerbett ba kitela ta, ta ezta komeni ni fatie, eta noiz bette otsain do, pixkat txarkiyo jarriala, ori esan ziñuen, ez ziñuen esan zana de.

G-Nik e enorien esaten da.

I-Klaro nola zue amarri, gutxoreki de, ze yakuskuzkizu zui arrek, gutxoreki de ze yakusduzkizu, eztiñet ni iki bizi ber, ni ettaki bizi beñet etortzen zan etxi onta anka jokan, ni falsuat izan neiz, esaten zuen, irri eta negar intzetteken, ni falso zarbat izeneiz, ni gizonak disimuletute majo bizi neiz, nik ze in bettut, ixo guañi bizik dau ta, ixo guañi bizik dau ta, eta beia notizioi berak ekartzuenien, ni arraso pasatu nitzen, eta bueno yo esatentzón bezozu Pakita, ni eztot fanber Kontsixonengana, beia amabiten, amabitaño espiatukot e eta inko dot otseñ Gregorii, eta ori intzuen, ori in giñon eta esantzuzun e Gregori zertan zorie ta oso poleki tia, rekuperatuo por lo menos e ye makurroi mintzet ye obiatu zan, eta ze iduitzen dakizu ba, etzinko gaa o ez gaa etzinko ta bei, bei, tia etzin... ye bagiñakigun dena ta yasta, orrek e gaube an pasatuko zuen etxi artan espia, bakizu espia, yo fan giñen guatzia, ta esan non, bueno, telefonue balenba dee, ateye zabalik autzikoñet eta nerie debei nee kuartokue eta ateye zabalik yoneskios, telefonuan otsa aungi aitzen da, infernuko demoniube ezta yoten beti lotan, gue mutiko gizajuoi fantzan Balladolize eta urrengo goizien fan be zuen zazpiten fan bezuen maniobreta eta arrek ikustentzuen, guk pasioy txarra giñakala eta ze intzuen arrek e maniobreta fatiako otsain, goizeko zazpiten telefonue, ni dal, dal, dal itten nakin, nik eznakin ze esaten nuen eta ze itten nuen dee, nik telefonue artu eta ze pasatzen da, ori atatzen nakin bakarrik, ze pasatzen

da, nik leenengo notiziek ze attu ber ote nittuen. Klaro ori tentaziye zu, mutikuek otsain da, nola dau tio, mutikua eztakieu, eztakieu ze esan dee, beia nei momentubartan esan eta kasi, kasi espia bezela. Oi, ni alako mendia fan ber da, ni ola fanber ta nik eztakit zenbat kilometro mendita fanber da, guai ze, mutikua ori esan dik Gregorik, alaide rato txarrure pasatuakiyola eta obekixoko kontube esan zien, eta geyo kontuk eztakieu eta emen eztok mintzet iyore dee eldu, a ze sustue eman dok, beia aundiyokue emanon nik arri, bakizu ze intzuen, arrek egunure maniobretan pasatu e eta gaubien, gutxines irurogei kilometro in kabinat arrapatzia, jakittati nola zion eta alfe-rezan bateki o fanementzian kotxen batien eta pentsatu ze ideaki, nik sikia esan bano, bei, bei, oso ongi dau beia nei trantze txarrorri espia nion e eta nei ata nakin kasi espia bezela, beia en medio de gravedad, ori berai esan non, zuk esantziñuenoi esan non eta jangoikuek daki guk ze egunek pasatuttoun denok e in mintzet telefonoti otsatteko ikiatuk nion eta yozeñek otsaitten zuen, Silibistre nola dau ba ta, zen etxiarta iyorede ezintzan fan, zen amangana iyorede ezintzan, iyore dee fan oi, qué desagradable, orrek ezakan bere, ezakan bere, onutze etortzentzian, ta bueno nolabette, nik attu nuenien ettarrekk pasa zizuzule katxarruarta, ze da ure, ubi, ubiti planta, bai beia eziñen sartu zu bera, ezuzun, otsatten zuzule ta...

G-A, eske seketayue zion, seketayue fanakin, ye ette nola zion galdetzia, eta ordubien ye otsain nurien ubiko enfermerak otsain nun fateko, fateko, eta bueno ye nik uste nuen ba ye seko, seko iltzala, ainbeste susto eman nuzkirien eta bueno ni fanitzen...

I-ei, bei ye, ye zuk ze ikusttezun, bei, bei ye akabo, akabo. Ni ordubien salbatu nitzen, ordua biyertie ez nitzen ixiltzen, beti ikiatuk, beia nola bett bera izketan asi, nei ze pasatuakiñet eta gauzok galde intzuzkien eta ye denok bazirudien zeruben sartu giñela, bueno ba erriyontan zen ettoi bota zan beia erri guzie geña bota zan, batek nei gizon arrek iñik dazkanak, bestiatek nei gizon arrek eztot patzen e itten... zen bat, alakue izan da ta denei intzalie izan da ta, gauzek arreglatzalie ta, gerok e gerok e bera bai ezin gaa ba bizi, gerok e gizon ure bedou ba guteko dee eta olexe jende guzie olexe ta San Franziskua, Jabierra peregrinaziye fateko apuntetuk giñoin erriyontati fantzan urtien yo yo ezan iyorede fan, nulo, ezta iyorede, ni de fantzan urtien fan netteken, beia apuntetubai nion beia Maritxui esanik apuntetzeko ni dee beia ez fan iyorede eta ni aurten ezin dot, aurten ezin nuen zengati mutikopai yotien etxien eta andrioi gizon orren atzetai ibilber eta ni, etxeko lanak in ber, aurten de ninguna manera, ezin nuen fan, aurten zozu konformidedie yon ber, ezin nuen, andrien amabostien izan da, ezin nuen fan, olexe akatu zan bei nolabette, gio pixkat obekixau, gio larrigarriyek izaten zittuen, noiz nei, noiz nei, beia, alai dee, alai dee, ye beñ guatzia sartu zaneti mintzet zerua, beia beriek pasatuk, zuk bezeñ ondo iyoredeke eztaki.

G-Berak, berak jakinkottu obeki.

I-Bei, bakizu ze esaten don berak, ure ez zala entiatu ezertas dee.

G-Ucin entiatu nitzen ni eta entiatu zan ama, bueno ama ez zan entiatu, bueno erdiye dee, nik ez non esaten.

I-Ze esan beziñon.

G-Ucin entiatu nitzen ni esaten nurien gau artati ez zuela pasatu ber...

I-Ye ze pasatuttezun zuk.

G-Amak e bei.

I-Amak izugarriyek, zuk esatiako adibinetuk zazkan ondoko guziek denak, orrek ez zuen esan bierrik, orrek lendabixiko egunien, esaten non beia aunbeste grabedade dee ezta izan ta, an bota zanien dee esanementzoren, buzue ez, ez, meikubek buzue jentzeko ez, ez, ez aldan belexen, eta zapatak jentzeko ta zapatak jentzen aiziala ankateko zapata jendu zorienien, beste anka berak jaso mentzuen, emen kontatzen zuen Silbik. Silbi ta zuzen Irurtzune ta gue mutiku orrek gertatu zanien, ori zion ardiyeki dermiyuen eta Luzion Usebio e quartu e otsa, tratorian otsia quartu, eta eztakit Usebion garraxi otsa o ze, gue mutikuoi, ou rra geña, eta beita beste tratorat e abo nue isusten zaltzenak, nionek ikus nittuen pasatzen ette semiek eta juntetu zianien, justu, justu gizonak trator ure moitzeko, mutiko txikiyarrek, azpiti olexe ata mentzuen mutiko gaztiarrek, guai bastante politte dee dau, orduben dee bastante politte yontzan, estudietzen daun zeranoi, Agernekuoi, orrek atamentzuen poliki, poliki, eta gio gue mutikuoi lasterkan, Txertxeyan aldia, Txertxeyanak ikus zittuenien kotxiaki, intzon eta bixkerreti otsain mentzon, listo meikube, anbulantzie onutze ekartzeko gue Emeteriok eta meikube eta anbulantzie bertan tokatu, anbulantzie meikuban onduen tokatu, eta nik eztakit nola mintzet rra presentatu mentzan, beia izen mentzan miñ artu e eta Iruña yamatie arrapalekue eta yo Iruñen bes e grabedadek ez zakala ta gauze ez inportante guziek ikusten da inportantie biyenbiyertie gizona ustutzen, jakintzezu ze odoles ustu zuen gareyartan ze zer...

G-Sei litro sartu zozkoren opiaziyuen.

I-Bei, bei ta yo odol geyo yonbalo, oñi más a su favor, izanko zan betako obenien beia... ye bertan akabo, akabo ez akordatzeko obie da, grabie beia grabie, beia biyerko egunoi izantzan grabedade egunoi.

#### NOLA ITTENTZAN OGIYE?

Zerak yakus zuen amazarrak, ogeitameike urtetan eta yo oratu giñuen, jarri giñuen eta epeldu eta zeratu, ze da ure, ogiye itteko ure, zera e bentzaye ekarri eta oratu eta nolabette oratu giñuen, ordun bet, ordu binbet pasatzen da, ogiye oratzen eta yo andi ordubetia o ola, labiai su ematen da, eta egurraik erretzen dianien, labie bildu biyenbiyertie, ogiyure etortzen da, eta zeratu ogiyeik e opilken, opilken ogiyeik iñ, eta labia sartu ta erretzen dia ta nolabette labia sartzen gaa, sartzen dou, eta erretzen dianien eta orratx.

G-Eta zenbat denbora pasatzen due labien?

F-Ordu bet o pasatzen due.

G-Eta yo saldu itten dezie ogiyoi?

F-Bei saldu yo ogiyoi.

G-Eta zemana?

F-Orduben ogi bakotxa amarna duro saltzen zan, beia bi kilokue o ola.

G-Eta nun ittentziñuerien sukuldien?

F-Sukuldien bi sukulde giñazkan, eta labien eta zeran, sukuldien eta giñuen, geyo eztot esan.

G-Eta kanpoko jendie etortzen zan yostia, o erriyen denak ittentzuerien ogiye, etxe guzetan ittentzan?

F-Ez, ezan itten etxe guzetan labie zakanak.

G-Eta etxe guziek ez zakuerien labek?

- F-Ez geyo ze esan biot.  
 G-Zenbat kilo yotentzuen gutxi gora bere ogi bakotxak?  
 F-Ogei o aztuakit ze esan dee bi kilo.  
 G-Ogi aundiyaik.  
 F-Ogi aundiyaik, ogi aundiyaik bi kilo.  
 G-Eta bestiek bes opil betzük bekela jateko, opil, opil txiki betzük?  
 F-Oik txikiyek izatentzian.  
 G-Eta bestiek esanttezunek?  
 F-Ze esan?  
 G-Aundiye, opillek eta yo beste txikiyoik.  
 F-Txikirrin, txikirrin betzük aurrendako o inde ola doblatute.  
 G-Eta ze izen zakuerien?  
 F-Opillek esaten giñon opillek. Kaxkañe eta yo beste opil txiki betzük e itten giñuzkien.  
 G-Eta kaxkañek ze izatentzian opillek beño txikiyokuek beba guañi.  
 F-Ogiye beño txikiyokuek.  
 G-Eta ori da, opille dee beño txikiyokuek.  
 F-Bei.  
 G-Eta ze yotentzuen forman bat o ematen ziñorien, gizonen forman bat  
 o...  
 F-Eta yo itten giñon labanaki.  
 G-Ebai.  
 F-Ebai o ola ogiyai, pixkat ebaitzen giñon eta yo labia sartu, oratzen giñuenien.  
 G-Oratu ze izatentzan?  
 F-Opillek eta itteko, opillek itteko, labia sartzeko opillek itten giñuzkien oratu, oratu, e astindu, eskubeki, asko ibil ber eskubeki.  
 G-Masa nei dezu esan, masure aungi nasi eskubekin.  
 F-Bei ogiye itteko.  
 G-Eta iriñe etxekue izatentzan o yosi ittentziñuerien?  
 F-Gariye etxien biltzen giñuen pixkat eta iyotzen giñuzkierien errotran eta...  
 G-Errota emen yotentziñuerien errota?  
 F-Errota bei or Unenua bideko etxiure.  
 G-Bei, beia ure nik pentsatzen nuen Unenuekue zala.  
 F-Ez, Unenuekue ta...  
 G-Dorroukue eta Lizerrakue izatentzan errotoi, ta guai ori ye ezta itten?  
 F-Ez, ezta itten.  
 G-Gariye ereñ bei, beia ye iyo eta ori ezta itten ez?  
 F-Ez.

BIBLIOGRAFIA

Euskal dialektologiaren hastapenak. U.E.U. Iruñea, 1983.

MOUTARD, N.: "Etude phonologique sur les dialectes basques".

*Fontes Linguae Vasconum*; 19 (5-20), 22 (9-24).

UHLENBECK, C.C.: "Contribution à une phonologie comparée des dialectes basques".

R.I.E.V.-III (1909), 465-503; IV (1910), 65-118.

LABURPENA

Lizarraga, Dorrao eta Unau, Nafarroako Ergoiena ibarreko herriak dira. Herri hauek euskera hizkuntzak lotzen ditu, baina, herri bakoitzean oso ezberdin hitzegiten da.

Lan honetan, Lizarraga herriko hizkera, fonetikoki nahiz fonologikoki aztertzen da.

RESUMEN

Lizarraga, Torrano y Unanua son los pueblos que configuran el valle de Ergoyena, en Navarra. Estos están unidos por una misma lengua, el vascuence, sin embargo, cada pueblo tiene su modo particular de hablarla.

En este trabajo, se realiza un estudio fonético y fonológico del vascuence de Lizarraga.

RESUME

Lizarraga, Dorrao et Unanu sont les villages de la vallée d'Ergoiena, en Navarre. Ceux-ci sont unis par une même langue, le basque, mais, chaque village a sa façon particulière de la parler.

Dans ce travail, on fait une étude phonétique et phonologique du basque de Lizarraga.

SUMMARY

Lizarraga, Dorrao and Unanu are the villages that form the Navarraise valley of Ergoiena. These are united by a same language, Basque, but, every village has its particular form speaking.

In this work, we do a phonetic and phonological study of the basque spoken in Lizarraga.

